



## FAMILIENDAKO INFORMAZIO OROKORRA

*Urtarrilaren 25eko 9/2023 Ebazpenean aurreikusitako prozedura 2022-2023 ikasturtean ikastetxean matrikulaturik ez dauden haurrei aplikatuko zaie.*

*Ikaspostua eska dezakete:*

- 2021ean eta 2022an jaiotako haurren gurasoek edo legezko ordezkariak, eta urte bat baino gutxiago duten haurrendako instalaziorik badago, 2023an jaiotakoek.
- Erditzeko aurreikusitako data egiaztatzen duen mediku-agiria aurkeztuta, jaiotza 2023-2024 ikasturtearen hasiera baino 16 aste lehenagorako aurreikusia duten haurren gurasoek.

*Ikastetxeetan hasteko, haurrek 16 aste beteak izanen dituzte, edo urtebete ikasturtea hasi baino lehen baldin eta ikastetxeek urte batetik beherako haurrentzako instalaziorik ez badute.*

*Adopzio edo harrera prozesuan dauden haurren kasuan, horren egiaztatzea aurkeztu beharko dute.*

## ESKAERAK

**ENTREGATZEKO EPEA:** 2023ko martxoaren 6tik 17ra.

Eskaera egiteko inprimakia, informazioa eta dokumentazioa honela eskura ditzakezue:

- Arangurengo Udalaren webgunetik deskargatuz
- Posta elektronikoz; [ttipittapa@ttipi-ttapa.es](mailto:ttipittapa@ttipi-ttapa.es)

Dokumentu guztiak honela aurkez ditzakezu:

- Ttipi-ttapa Haur Eskolan eginen dira 11:00etatik 13:00etara. Ordutegi horretatik kanpo, aldeztu aurretik hitzordua eskatu beharko da 948231593 telefonoan (Elena).

**Ez ahaztu eskaeraren frogagarritza edo mezuaren jaso-agiritza eskatzea.**

### AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

a) Haurren jaioteguna eta eskatzailearen bizilekua egiaztatzen dituen dokumentua. Jaio gabeko haurrentzat, aurreikusitako jaiotze data egiaztatzen duen txosten medikoa.

b) NANaren, pasaportearen, atzerritarrentzako bizileku-txartelaren edo aitaren eta amaren edo legezko ordezkarien nortasun agiriaren edo baliokidea den dokumentuaren fotokopia.

c) Familiaren osaera frogatzen duen dokumentazioa:

- Familia liburuaren fotokopia (gurasoak eta seme-alabak) edo, halakorik ez badago, antzeko agiri ofiziala osorik.
- Haurra harrera-egoeran dagoela edo adoptatua dela frogatzen duen agiria.
- Banantzearen edo dibortzioaren kasuan, hura ezartzen duen epai judiziala edo legez frogatzen duen dokumentua.
- Hala badagokio, familia-unitateko edozein kideren% 33ko edo gehiagoko desgaitasun fisiko, psikiko edo sensoriala egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Familia ugariaren titulua.
- Guraso bakarreko familia-titulua

d) Aitaren eta amaren edo legezko tutoreen lan egoeraren eta/edo egoera akademikoaren frogagiriak.



- Besteren konturako langileen kasuan, aurreinskripzioaren epea bukatzeko egunaren aurreko 30 egunean Gizarte Segurantzaren edo dagokion mutualitatean alta emanda zegoela frogatzen duen agiria.
  - Norberaren konturako langileen lan egoera frogatzeko, aurreinskripzioa bukatzeko egunaren aurreko 30 egunean mutualitate orokorrean edo Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean eta jarduera ekonomikoen zergan altan zegoela frogatzen duten agiriak beharko dira.
  - Langabezian egonez gero, enplegu-eskaerako txartela.
  - Eszedentzian egonez gero hiru urtetik beherako seme-alabak zaintzeko, eszedentziaren jakinarazpena aurkeztu behar da. Lan egoera aktibotzat hartzeko, idatziz zehaztu beharko da lanera itzuliko dela ikasturtea hasi ondoko hilabete eta erdi baino lehen.
  - Eskaera aurkezteko unean ikasten arituz gero, matrikularen frogagiria, ikasturteko egutegia eta ordutegia aurkeztuko dira.
  - Hala badagokio, familia-unitateko kideren bat ezintasun iraunkorreko edo baliaezintasun handiko pentsioa aitortuta duen Gizarte Segurantzako pentsioduna dela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- e) Errenta mailak frogatzeko agiriak.
- Familia-unitateko kide konputagarri guztien errentaren gaineko zergaren azken aitortpenaren fotokopia. Hori egitera behartuta ez badaude, beste errenta edo diru-sarrerara batzuk jaso izana justifikatzen duen dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da, edo, azken buruan, horien zinpeko aitortpena eta/edo zentroaren titularrak den toki-erakundeak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak, 2021. urteko familia-sarrerak zehazteko, edo 2022. urtekoak, onarpen-prozesua 2023ko ekainaren 30a baino geroagokoa bada.
- f) Aitaren, amaren edo legezko tutoreen bizitokia edo lantokia eragin-eremu geografikoan dagoela frogatzen duen dokumentua.
- Erroldaren ziurtagiria, udalak emana, haurra eta aita edo/eta ama edo haurraren legezko ordezkariak 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen udalerrian erroldatuta daudela jasotzen duena, edo, lanagatik edo haurrarekin bizi den gurasoari dagozkion beste arrazoi justifikatu batzuk direla eta, udalerrira horretara bizitzera aldatu diren egunekoa.
  - Jaio gabeko haurren kasuan, haurraren aitaren eta/edo amaren edo legezko ordezkarien erroldaren ziurtagiria.
  - Zaintza eta jagoletza dituen aitaren, amaren edo legezko ordezkarien lantokia zein den frogatzen duen agiria.
  - Bizilekua aldatzea aurrez ikusi bada, etxebizitza ikasturtea hasi baino lehen emanen dela frogatzen duen agiria baloratuko da. Kasu horretan, gaur egungo bizilekua zein den adieraziko da jakinarazpenetarako, eta bizileku berria, berriz, baremazioa egiteko.
- g) Sarbide zuzenerako baldintza bereziak betetzen direla frogatzen duen agiria:
- Haurraren desgaitasuna kalifikatzen duen ziurtagiria edo haurraren mendekotasun handia (III. gradua) aitortzen duen egiaztagiria eta/edo profesional batek egindako txostena, zeinetan deskribatzen diren hezkuntza premia berariazkoak ekar ditzaketan ezaugarriak.
- h) Beste edozein egoera berezi baloratzeko frogagiriak. Medikuen, psikologoaren, gizarte langilearen edo zerbitzu espezializatu ofizialen txostena aurkeztu beharko da inguruabar hori frogatzeko.



## ZERRENDAK ARGITARATZEA

### BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK ARGITARATZEA: 2023ko maiatzaren 9an.

Onartuen zerrenda eta itxaron-zerrenda TTIPI-TTAPA Haur Eskolan eta Udaletxean jarriko dira ikusgai.

### ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEA: 2023ko maiatzaren 9tik 12ra.

**Tokia: TTIPI-TTAPA Haur Eskola.**

Hautapen Batzordeari zuzenduko zaizkio, behin-behineko zerrendetan agertutako puntuazioa berrikusteko zergatik eskatzen den azalduz. Ez da inolaz ere onartuko eskaerak aurkezteko epean aurkeztu ez den dokumentazio berririk, non ez den aurkezten akatsak zuzentzeko, hasieran aurkeztutako dokumentazioa falta den moduan.

### BEHIN BETIKO ZERRENDAK ARGITARATZEA: 2023ko maiatzaren 18an.

**Tokia:** Onartuen zerrenda eta itxaron-zerrenda TTIPI-TTAPA Haur Eskolan eta Udaletxean jarriko dira ikusgai.

## MATRIKULA

### MATRIKULA FORMALIZATZEA: 2023ko maiatzaren 18tik 25era.

Ttipi-ttapa Haur Eskolan egingen dira 11:00etatik 13:00etara. Ordutegi horretatik kanpo, alde zurretik hitzordua eskatu beharko da 948231593 telefonoan (Elena).

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Haurra inskribatuta dagoen Gizarte Segurantzako kartillaren edo txartelaren fotokopia.
- Matrikularen ordainagiria (100€). Rural Kutxa: ES95 3008 0208 0432 9347 8123. Kontzeptua: haurraren izen-deitura. **Zenbateko hori ez da itzuliko matrikula bertan behera utziz gero.**
- 2022ko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenaren fotokopia, aitarena eta amarena edo legezko ordezkariak. Azterketa egitera behartuta ez badaude, dagokion dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da, edo, azken buruan, 2022ko errenten eta diru-sarreraren zinpeko aitortpena eta/edo ikastetxearen titularrak urte horretako familiaren diru-sarrerak zehazteko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak.  
Agiri horren entrega atzeratu ahal izango da 2022ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenaren kanpainaren azken egunera arte.
- Ordainagiriak helbideratzeko banku entitateko kontu-zenbakiaren fotokopia, titularra eta zenbakia agertzen dituenak.
- Kasua bada, beharrezkoa den osasun informazioa, haurra behar den moduan zaintzeko.
- Hala badagokio, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotza bakoitzeko familia-unitateko kideen kopuruan izandako aldaketa egiaztatzen duen dokumentazioa.

### HAUR ESKOLAK ERABAKIKO DU HAURRA NORA BIDALI, IDOI PLAZAKO EDO IBAIALDE PASEALEKUKO ZENTRORA.

## OHARRAK ETA DATUAK EGIAZTATZEA

- Matrikula egiteko, beharrezkoa da haurrak 16 aste beteak izatea ikasturtea hasten denean, edo 12 hilabete, urte batetik beherako haurrentzako instalaziorik ez duten ikastetxeen kasuan.
- Ezarritako epean matrikularik egiten ez bada, ikaspostuari uko egin zaiola ulertuko da, eta beste bati esleituko zaio itxaron-zerrendako hurrenkerari jarraikiz.



- Eskatutako aukeretako batean matrikula egiteak berekin ekarriko du ikastetxe bereko beste aukerei edo herri bereko beste zeinahi ikastetxetako aukerei uko egitea, ikastetxearen titularra den toki entitateak hala ezartzen duen udalerrietan.
- Alegatzen den egoerari buruzko frogagiriak aurkezten ez badira, zero puntuazioa emanen da onarpen baremoan dagokion atalean.
- Egiaztatzen bada eskabidean edo erantsitako agirietan adierazitako datuak okerrak edo faltsuak direla, hango puntuazioa aldatuko da eta, kasua bada, emandako ikaspostua kenduko da.
- Hautapen Batzordeak noiznahi eska dezake interesdunek aurkeztutako dokumentazioaren akats formalak zuzentzeko.

## TARIFAK

Tarifak aplikatuko dira 2023-2024 ikasturterako tarifak arautzen dituen Hezkuntza Departamentuko araudian ezarritakoarekin bat.

a) Bi gurasoko familia

PER CAPITA ERRENTA- TARTEAK		ESKOLALDIA		JANTOKIA	ESKOLALDIA + JANTOKIA	
Desde	Hasta	Completa (7 h)	Media (4 h)		Completa (7 h)	Media (4 h)
Mayor de	15.000	163	107	95	258	202
12.400,01	15.000	134	84	95	229	179
10.700,01	12.400	98	55	95	193	150
9.300,01	10.700	69	32	95	164	127
7.980,01	9.300	0	0	84	84	84
6.650,01	7.980	0	0	84	84	84
5,500,01	6.650	0	0	66	66	66
4.500,01	5.500	0	0	58	58	58
3350,01	4.500	0	0	56	56	56
Menor o igual a 3.350		0	0	52	52	52



b) Guraso bakarreko familiak edo guraso bakarreko egoeran dauden familiak:

PER CAPITA ERRENTA- TARTEAK		ESKOLALDIA		JANTOKIA	ESKOLALDIA + JANTOKIA	
Desde	hasta	Completa (7 h)	Media (4 h)		Completa (7 h)	Media (4 h)
Mayor de	15.000	0	0	84	84	84
12.400,01	15.000	0	0	84	84	84
10.700,01	12.400	0	0	84	84	84
9.300,01	10.700	0	0	84	84	84
7.980,01	9.300	0	0	66	66	66
6.650,01	7.980	0	0	66	66	66
5.500,01	6.650	0	0	52	52	52
4.500,01	5.500	0	0	42	42	42
3350,01	4.500	0	0	32	32	32
Menor o igual a 3.350		0	0	25	25	25

### BAREMOA

A) Familia-unitatea, puntuazio metagarria gehienez: 15 puntu.

- Deialdi berean bi seme-alabarentzat edo gehiagorentzat ikaspostua eskatzen bada ikastetxe berean (ikaspostuaren erreserba eta jaio gabeendako eskaerak barne), 15 puntu.
- Familia gurasobakarrak edo gurasobakartasun egoeran daudenak: 5 puntu
- Familia ugariak, 5 puntu
- Familia unitateko kideren batek %33ko edo gehiagoko desgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenekoa badu, behar bezala aitortua: 4 puntu.
- 6 urtetik beherako bi seme edo alaba edo gehiago dituzten familien kasuan: puntu bat haur bakoitzeko.

B) Gurasoen edo legezko tutoreen lan eta gizarte egoera edo egoera akademikoa: 20 puntu

a) Familia orokorrak

Guraso berak bi egoera posible baditu, horietako bat bakarrik hartuko da kontuan, puntuaziorik handiena duena.

- Gizarte Segurantzaren lanaldi osoan edo partzialean alta eman duen legezko guraso edo ordezkari bakoitzeko, edo behar bezala justifikatutako lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketak arautuak egiten ari den guraso edo legezko ordezkari bakoitzeko, edo ezintasun iraunkor



absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan dagoen guraso edo legezko ordezkari bakoitzeko: 10 puntu

- Lana bilatzen ari den guraso edo legezko ordezkari bakoitzeko: 5 puntu.

b) Familia gurasobakarrak edo gurasobakartasun egoeran daudenak

- Gizarte Segurantzaren lanaldi osoan edo partzialen alta eman duen gurasoa edo legezko ordezkari, edo behar bezala justifikatutako lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari dena, edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan dagoena: 20 puntu.

- Lana bilatzen ari den gurasoa edo legezko ordezkaria: 15 puntu.

d) Zaintza eta jagoletza eskusiboa duen gurasoa, guraso bakarreko familia edo guraso bakarreko familia egoeran dagoena izan gabe.

- Gizarte Segurantzaren lanaldi osoan edo partzialen alta eman duen gurasoa edo legezko ordezkari, edo behar bezala justifikatutako lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari dena, edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan dagoena: 20 puntu.

- Lana bilatzen ari den gurasoa edo legezko ordezkaria: 15 puntu.

D) Per capita errenta: 15 puntu, gehienez.

Per capita errenta (€)	Puntuak
> 15.000	1,5
12.400,01 - 15.000	3,0
10.700,01 - 12.400	4,5
9.300,01 - 10.700	6,0
7.980,01 - 9.300	7,5
6.650,01 - 7.980	9,0
5.500,01 - 6.650	10,5
4.500,01 - 5.500	12,0
3.350,01 - 4.500	13,5
< 3.350,01	15,0

E) Eraginpeko eremu geografikoa; gehienez ere: 20 puntu

- Haurra, aita, ama eta/edo legezko ordezkariak 2023eko urtarrilaren 1a baino lehen errolatuta egoteagatik, plaza eskatzen den ikastetxeko udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoaren barruan dagoen udalerrri batean (horri buruzko akordioa egin duten udalentsat): 20 puntu.
- Aitak, amak edo legezko ordezkariak, plaza eskatzen den ikastetxea dagoen udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoan lan egiteagatik: 8 puntu.
- Guraso edo legezko ordezkariak entitate titularren Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe batean lan egiteagatik: 5 puntu.

F) Beste irizpide batzuk. Hautapen Batzordeak beste behar larri batzuk, pertsonalak, familiakoak edo sozialak, behar bezala frogatuak eta aurreko ataletan bildu gabeak, hartzen ahal ditu kontuan: 10 puntu, gehienez ere.



G) Baremoa aplikatzean adin-talde bakoitzean eskaintako azken lanpostuan berdinketa gertatzen bada, honako irizpide hauek hurrenez hurren aplikatuz ebatziko da:

- 2.1. atalean (Familia-unitatea) puntuazio handiagoa lortu da
- 2.3 atalean (Per capita errenta) puntuaziorik handiena lortu da
- 2.4. atalean (Eragin-eremu geografikoa) lortutako puntuaziorik handiena
- 2.2 atalean (Gurasoen edo legezko ordezkarien egoera soziolaborala edo akademikoa) lortutako puntuaziorik handiena
- 2.5 atalean (Beste irizpide batzuk) puntuaziorik handiena lortu da
- Zozketa publikoa. Hezkuntza kontseilariaren maiatzaren 4ko 46/2021 Foru Aginduaren 13.6 artikuluan aipatzen den ikasleak onartzeko eskumena duen Hezkuntza Saileko organoak 2023ko martxoaren 3an egindako zozketaren emaitza aplikatuko da.

### ESKOLAKO ORDUTEGIAK:

- ✓ **ESKOLALDI OSOA:** (7 ORDU BAINO GEHIAGOKO ESKOLALDIA EZ DA ONARTUKO)
  - SARRERA: 8.00etatik 9:30ak arte
  - GOIZEKO IRTEERA: 12.30etatik 13.00ak arte
  - ARRATSALDEKO IRTEERA: 15.00etatik 16.15ak arte
- ✓ **GOIZEAN LAU ORDU JARRAIAN, JANTOKIA BARNE EDO JANTOKIRIK GABE:**
  - SARRERA: 8.30etatik 9.30ak arte
  - IRTEERA: 12.30etatik 13.00ak arte

### DATUAK BABESTEIA

- Jasotzen diren haurren, gurasoen edo tutoreen datu pertsonalak Haur Eskolak tratatuko ditu, honako helburu hauekin: eskolako haurrei hezkuntza-arreta ematea, izen-emateak eta matrikulak kudeatzea, administrazioa eta itxaron-zerrenda kudeatzea, ikasleak kudeatzea eta gurasoekin edo tutoreekin harremanak izatea, eta fakturazioa kudeatzea. Aranguren ibarreko udala da tratamenduaren arduraduna.
- Matrikula egitean zerbitzua garatzeko datuen tratamendua baimentzen duzu. Jakinarazten zaizu jasotako datuak hirugarrenei laga ahal izango zaizkiela, araudian aurreikusitako kasuetan.
- Emandako datuak gordeko dira haurra eskolara joaten den bitartean eta legezko betebeharrak betetzeko eta datuak biltzeko xedea betetzeak ekar ditzakeen erantzukizunei erantzuteko behar den denboran.
- Datuak babesteari buruzko informazio gehigarri eta zehatza gure webgunean kontsultatu dezakezu: [www.aranguren.es](http://www.aranguren.es)
- Datuetan sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko eskubidea duzu. Horretarako, Aranguren ibarreko udalera jo behar duzu, zure NANaren edo agiri baliokidearen kopia erantsita. Halaber, eta bereziki zure eskubideak baliatzean erabateko gogobetetzea lortu ez duzula uste baduzu, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu kontrol-agintaritza nazionalean, horretarako Datuak Babesteko Espainiako Agentziara joz (Jorge Juan kalea 6, 28001 Madril).